

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 7a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezartzen dituena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatze oinarriak ezartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatze oinarriak ezartzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatze oinarriak ezartzen dituen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatze oinarriak ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

I

UPNren egungo gobernuak, koalizio gobernuaren garai laburrean emandako bultzadaren ondorioz, bere burua behartuta ikusi du proposamen bat aurkeztera (8-12 Foru Legea/Ley00021), baina beste behin agerian utzi da nolako interes falta daukaten Toki Administrazioaren modernizatzeko zabal bati ekiteko. Hori dela eta, esan dezakegu proposamen hori alderdikoia, lotsatia, nahasia eta nabarmen eskasa dela.

Alderdikoia.- Proposamenak ez du inolako adostasunik bildu. Gobernuak ez du ahalegin txiki-ena ere egin gainerako indar politikoeekin akordio bat lortzeko. Gobernuak ez du inolako lanik hartu kontzejuei eta udalei informatzeko eta haiei zuzenean entzuteko.

Lotsatia.- Agiri hori irakurrita, ondorioztatzen da Gobernuak beste guztiaren aurretik jartzen dituela bere ahuldadea eta, horrenbestez, inor ez molestatzeko interes alderdikoia, zeren eta bai baitaki ezin dituela denak pozik eduki.

Toki entitateen kopuru oso handi bati eusten dio: 272 udal, 348 kontzeju, 103 zerbitzuetarako batasun, 6 mankomunitate, 4 tradiziozko batasun. Guztira, 733.

Ez du planteatzen metropolialde bat sortzea Iruñeko konurbazioko udalek dauzkaten kudeaketa-arazoei konponbidea emateko, besteak beste polizia eta hirigintza-plangintza bezalako arloetan, eta iradokitzen du ezen eskumen horietatik batzuk mankomunitateek har ditzaketela beren gain, har-

tara bidea emanez Iruñeko konurbazioan baizik eragina ez duten erabakiak har ditzaten ukituta ez dauden udalen ordezkariak.

Ez du neurririk planteatzen udalez gaindiko entitateen zuzendaritza-organoak demokratizatze-ko.

Nahasia.- Ez ditu irmotasunez zehazten udalez gaindiko entitate batek eta mankomunitateek kudeatu beharko lituzketen eskumenak. Iragartzen du dirua kenduko duela udalen transferentzia arrunten funtsetik, mankomunitateei emateko. Iradokitzen du kapitaleko transferentzien funtsa desagertuko dela, ahaztuta funts hori, egiazki, elkartasun-tresna baten gisara erabiltzen dela eta aukera ematen diela udal txikiei bestela nekez aurrera eraman ahalko lituzketen edo egiterik izanen ez lituzketen obrak egiteko. Iradokitzen du litekeena dela finean zerbitzuetarako batasunek kudeatzea mankomunitateek kudeatzen ez dituzten zerbitzuak. Udalak desagerraraztea planteatzen du, haie- tarako hautagairik ez dagoenean, ahaztuta kasu horrek eragina izan dezakeela Hauteskundeei buruzko Lege Orokorrean, Espainiako udal guztie- tarako berdintasun printzipioa urratuz.

Nabarmen eskasa.- Proposamenaren xedea, demostratu den bezala, ez da tokiko mapa sinplifi- katzea, eta minifundismoari eusten jarraitzen du, ez ditu toki entitateak indartzen, ez du finantzaketa argitzen, eta abar.

Toki maparen berrantolaketa eta haren moder- nizatzea beharizan saihestezina da, indar politiko- en arteko adostasun zabal bat biltzen duen behar- rizana. Berrantolaketa horretarako, borondate politikoa behar da, bereziki gobernatzan duenaren eskutik.

Denborarekin, indar politiko guztiek, modu batera edo bestera, adierazi dute erreforma horri aurre egin behar zaiola, egia bada ere batzuek sinesmen handiagoa jarri dutela beste batzuek baino eta proposamenak ere ez direla beti bat eto- rri. Nolanahi ere, demostratu da UPNren gobernu- ek ez dutela interes politikorik izan.

Oso maiz sinestarazi nahi da berrantolaketa hori soilik ikuspuntu ekonomizista batetik dela beharrezkoa, ahaztuta egiazko arrazoia honakora bideratu beharra dagoela:

- Tokiko zerbitzuen kudeaketa eta ematea hobetu eta arrazionalizatzea.

- Herritarrek ahalik eta zerbitzu berdinenak modu berdinean jaso ditzaten lortzea, haien bizitokia zein den ere.

- Nafarroako Toki Administrazioaren administra- zio eta eginkizunen mapa lurraldearen arabera antolatzea.

Halaber, immobilismoan instalatuta daudenek beste behin esaten dute berrantolaketa sakon bat egiteak eragina izan dezakeela pertsonak beren herrietan dituzten sustraletan. Kontu hori, dena den, barregarrikeriaren muga-mugan dago, zeren eta sustraiak indartuko baitira herritarrei zerbitzu hobeak eskaintzeko gai garen neurrian.

Berrantolaketa sakon bati ez ekiteko argudioak aurkitzeko irrikan, eta bereziki kontzejuak desager- tzeari dagokionez, argudiatu ohi da haien legezko ordezkariak eginkizun sozial handi bat betetzen dutela, zeren eta instalazioak mantentzeaz eta zaintzeaz arduratzen baitira (garbiketa egitea, bon- billak aldatzea eta abar), eta horrek aurrezki han- dia dakarkielako kontzejuei. Zalantzarik gabe plante- amendu hau guztiz barregarria da, eta kargu publikoen figura gutxiesten du.

Gaur egun, adibide batzuk badaude –Arangu- rengo Udalarena kasu–, non ikusten baita kontze- juen eskumenak udalak kudeatzen dituela, eta zalantzarik gabe modu eraginkorrago eta efiziente- ago batez egiten du. Eskumenak udalen eta kon- tzejuen artean berrantolatu behar dira, herritarrei zerbitzu hobeak ematea aldera.

II

Nafarroa erkidego dinamiko, moderno, efizien- tea da, modernitatean sinesten duena eta admi- nistrazio eraginkor bat behar duena, herritarrek behar dituzten eta eskatzen dituzten nolakotasu- nen eta gaitasunen mailari egokitua.

Toki maparen berrantolaketa eta haren moder- nizatzea beharizan saihestezina da, indar politiko- en arteko adostasun zabal bat biltzen duen behar- rizana. Berrantolaketa horretarako, borondate politikoa behar da.

Tokiko Maparen arrazionalizatzea Nafarroako Foru Komunitateak gainditzeko duen ikasgai garrantzitsutzat jotzen da, eta Nafarroako erakun- deek beti kezka hori izan dute eta beste entitate askok ere eskakizuna egin izan dute –Kontuen Ganbera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federa- zioa eta abar–. Izan ere, entitate indartsuagoak eratzeko eta egungo egituren berrantolaketa admi- nistratibo eta funtzionala eskatu izan dituzte.

Kezka horiek antzinakoak dira, 1963an hasi baitziren, baina 6/90 Foru Legetik aurrera ikusi zen beharrezkoago erreforma horri ekitea. Baina erre- formari ezin izan zaio ekin bultzada politikoa falta izan delako.

Nafarroak 641.293 biztanle dauzka (2011ko urtarrila). Horietatik erdiak Iruñean eta Iruñerrian daude bildurik, eta herritar horiei toki izaerako zerbitzuak eman ahal izateko, UPNren gobernuen konbikzio falta horren ondorioz funtsean, une honetan iritsi gara 678 toki entitate edukitzera, eskumenen aldetik nahasmendu handia dutenak. Horrek ekartzen du toki entitateek etengabe kexa egitea kudeatzen dituzten eta berezko ez dituzten eskumenei buruz, eta,aldi berean, berarekin ekartzen du toki entitateen finantzaketa egokia bermatzeko zailtasunak izatea.

Atomizazio hori dela eta, Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 23an, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen udalen mapa administratiboaren berrantolaketa-proposamen bat aurkeztera. Udal mapa horren edukiak honako printzipioak bete beharko zituen:

- Kudeatze-gaitasuna.
- Toki-entitate indartsuak.
- Udal eta kontzejuen gaur egungo kopurua errespetatzea.
- Bategitea posiblea izateko, borondatezkoa izan behar du.
- Toki-entitateen eskumenen katalogoa.

Gomendio hori gauzatu zen Nafarroako toki administrazioari buruzko berrantolaketa administratibo eta funtzionalari buruzko azterlan batean, non honako helburuak jarri baitziren:

- Tokiko zerbitzuen ematea hobetzea eta arrazionalizatzea, borondatezko elkartegintza-prozesuen bitartez.
- Herritarren zerbitzu-hartzean ahalik eta berdintasun handiena lortzea.
- Nafarroako Toki Administrazioaren administrazio eta eginkizunen mapa lurraldearen arabera antolatzea.

Halaber, 2011ko otsailaren 2an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen lege proiektu bat aurkeztean, haren bidez tokiko maparen erreforma gauzatzeko aldera. Halaber, planteatu zuen mapa honako printzipioei jarraituz egin zedila:

- Subsidiarioritasuna: Ahalmenagatik eta gertutasunagatik toki esparrutik hobeki eman daitezkeen eskumenak berenganatuko dituzte udalek. Eskualdeek, mankomunitateek eta udalez gaindiko esparrua duten beste entitate batzuek udalez gaindiko esparru bat eskatzen duten eskumenak berenganatu beharko dituzte.

- Eskumenen argitasuna. Foru eta toki administrazioek dituzten eskumen osoen esparrua ezarriko da.

- Finantza-nahikotasuna. Esleitutako eginkizunak bete ahal izateko adina baliabide ziurtatuko zaie toki entitateei. Ezinbestekoa da eskumenen egiazko kostua kontabilizatzea, hori baita, eta ez hori baino gutxiago, eskumenak beste administrazio batzuetatik betetzearen kostua.

- Elkartasuna. Beharrezkotzat jotzen da herritar guztiek prestazio berberak eta zerbitzu publiko berberak ziurtatuta izatea, alde batera utzita zein udaletan duten bizilekua.

Krisi ekonomikoak agerian jarri du tokiko plan-taren berrantolaketa azkartzearen eta toki entitate-ak indartzearen beharra eta komenigarritasuna, zerbitzuak modu eraginkor eta efizientean emanen dituzten entitateak edukitze aldera. Esplikatzeko zail gertatzen da inongo zerbitzurik emateko gaitasunik ez duten entitateak existitzea.

Parlamentuko eztabaidetan zehar, agerian geratu da indar politikoek asmoa dutela erreforma horri ekiteko eta komeni dela hori egiterakoan ahal den adostasunik handiena lortzea, bai indar politikoaren artean, bai ukitutako administrazioen artean, betiere jakinda horrek esan nahi duela guztiek beren hasierako planteamenduetan amore eman behar izatea.

Badirudi egokia dela birplanteatzea 272 udal eta 347 kontzeju edukitzearena, gaur egungo eskumenen banaketarekin. Izan ere, erabaki horrek tokiko maparen erreformako edozein aurre-erapauso baldintzatzen du eta horrek, bere aldetik, Nafarroako Toki Administrazioaren egungo egitura-aren indartzea eta modernizatzea ere baldintzatzen ditu, zeren eta haiek egoteak berarekin ekartzen baitu toki entitateen kopurua oso handia izatea, eta horrek, bere aldetik, baldintzatzen eta zailtzen du Toki Ogasunen Funtsearen banaketarako arrazoizko formula bat lortzea.

Behin betiko aurre egin behar zaio udal eta kontzejuak beren borondatez berrantolatzeko edo bat egiteko beharrari. Horretarako, bide egoki eta argiak ezarri behar dira eta, gainera, berrantolatze eta bat egite horiek sustatzeko neurriak ezarri beharko dira, zeren eta egiaztatuta baitago soilik borondatezkotasuna erabilita ezinezko gertatzen dela udal mapa arrazionalizatzea. Izan ere, horixe gertatu da Nafarroan aurreko urteetan, eta horrek ekarri du atomizazio are handiagoa izatea. Bada, atomizazio hori goraldi ekonomikoko egoeran zalantzarikoa bazen, are zalantzarikoa da krisi ekonomikoko egoera batean. Atomizatze joera hori, gainera, nazioarteko korrontearen aurkakoa

da, non baloratzen baita udalek bat egitea ezinbesteko osagaia dela tokiko gobernua indartzeko prozesu orotan. Horri buruz, era askotako nazioarteko esperientziak badaude (Danimarka, Finlandia, Frantzia) eta Bruselan, zehazki Europar Kontseiluaren txosten bat, beharrezkotzat jotzen duena 10.400 biztanletik beherako udalak kentzea, haien zerbitzu-ematea efizientea ez delako eta mantentze-kostuak handiak direlako, eta horrek guztiak zailtzen duelako tokiko kudeaketan efizientzia irizpidea aplikatzea. Hala eta guztiz ere, Nafarroako udalen tamaina txikiari erreparatuta, tokiko mapa berria erabakitzeko irizpidea ezin da soilik izan irizpide ekonomizista; izan ere, aintzat hartu beharko dira bestelako irizpideak: sakabanaketa, zailtasun orografikoak eta, nola ez, zerbitzuak emateko gaitasuna.

Udalen arteko kudeaketa-egituretan integratzeko moduak finkatu eta horren aldeko apustua egin behar da, eta eraginkortasun eta berdintasun handiagoak lortu behar dira zerbitzu-emateetan, mankomunitateak berrantolatuz eta tarteko beste entitate batzuk sortuz, 2000 biztanletik beherako populazioa duten udaletako zerbitzu-ematea beren gain har dezaten, mankomunitateek ematen ez dituztenena. Tarteko entitate horiei "barruti" dei dakieke.

Hasierako barrutiek egitura iragazkorra izanzen dute, halako moduz non beren gain hartu ahalko baitituzte 2000 biztanletik beherako udalen eskumenak eta, halaber, 2000 biztanletik gorako udalen eskuordetutako eskumenak.

Nafarroako Toki Administrazioaren erreforma honek bilatzen du Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa, sinpletzea, modernizatzea eta demokratizatzea. Hori dela eta, ezinbestekoa da horri aurre egitea etorkizunari buruzko ikuspegi zabal batekin eta egungo tokiko planta aldatzeko beharra onartuz. Honakoak dira egungo tokiko maparen erreformarako ardatz diren neurriak:

- 2000 biztanletik beherako udalek, kontzejuek eta barrutiek kudeatu behar dituzten eskumenen definizioa.
- Zerbitzu administratiboetarako batasunak kentzea.
- Idazkaritza batasunak kentzea.
- Egungo mankomunitateak kentzea.
- 6/90 Legean jasota dagoen administrazio-barrutiaren figura garatzea, halako moduz non entitate horiek beren gain hartuko dituzten udalei dagozkien zerbitzuak emateko eskumenak.

- Mankomunitateak berrantolatzea, interes orokorreko 8 mankomunitate sortuz.

- Iruñeko konurbazioan metropolialdea sortzea.

- Azaldutakoari aurre egin beharko litzaioke erreferentzia bat galdu gabe, alegia, udala dela Nafarroako Foru Komunitateak lurraldea antolatze-ko duen oinarrizko toki entitatea.

- Lortu nahi da, era berean, udalek ematen dituzten zerbitzuak berrantolatzea, banaketa argi bat eginez toki entitateentzat (udalak, kontzejuek, barrutiak, mankomunitateak eta Iruñerriko Metropolialdea).

- Mankomunitate orokorren zuzendaritza organoen eta barrutietakoen demokratizazioan sakontzea.

- Legedi indardunaren arabera, sustatzea eta areagotzea herritarrek erabakietan parte har dezatela.

- Finantzaketa formula berri bat ezartzea, bat etorriko dena Nafarroako Toki Administrazioaren egitura berriarekin eta arestian aipatutako entitate bakoitzari emandako eskumenekin.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Nafarroako Foru Komunitateak bere Toki Administrazioa antolatzen du foru lege honetan ezarritako irizpideen arabera.

2. artikulua

Udalak dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde antolamenduaren oinarrizko toki entitateak, eta herritarrek ekitaldi publikoetan parte hartzeko lehen mailako bidea dira.

Udalerrriaren osagaiak lurraldea, biztanleria eta antolaketa dira.

3. artikulua

Udalez gainera, honakoek ere Nafarroako toki entitate izaera daukate: kontzejuek, barrutiek, mankomunitateek, Iruñerriko Metropolialdeak eta tradiziozko batasunek –Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarra, Erronkari Ibarra eta Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea– eta partzuergoek.

4. artikulua

Beste edozein tradiziozko batasun zerbitzu komunak emateko zuzenbide publikoko entitateentzat hartuko da.

II. TITULUA

Udalak

5. artikulua.

Udalek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako eskumenak baliatuko dituzte, eta haietatik eratorritako zerbitzuak emanen dituzte, banaka zein udal horien populazioaren arabera elkartean bitartez.

Zerbitzuak elkartean bidez emate aldera, administrazio barrutiak, interes orokorreko mankomunitateak eta Iruñerriko Metropolialdea sortuko dira, eta toki entitate horiei esleitzen zaizkien eskumenen arabera zerbitzuak emateko ahalmena emanen zaie.

Udalek, banaka zein elkartuta, legedi orokorrean ezartzen diren nahitaezko zerbitzuak eman beharko dituzte, eta ezin izanen diote haiek emateari utzi.

6. artikulua

Beste administrazio publiko batzuek eskuordetutako eskumenak beren gain hartzen dituzten udalek halako moduz eginen dute hori non ziurtatuko baita ez dela bikoiztasun administratiborik gertatzen eta haien finantzaketa bermaturik egonen dela, herritarrei kontsulta egin ondoren.

7. artikulua

Udalak desegitea.

Udal dermioen sorrera, desegitea, bategitea eta deuseztatzea, bai eta haiek aldatzea ere, foru lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen dira.

Aurreko lerrokadan aipatutako prozesu guztien xedeak honakoak izanen dira:

- a) Udalaren eskumeneko zerbitzuen ematea hobetzea.
- b) Ukitutako toki entitateen kudeatze-ahalmena handitzea.
- c) Udal dermioak errealitate fisiko, demografiko eta kulturaleri egokitzea.
- d) Herritarrek tokiko gaietan parte har dezaten bultzatzea eta zerbitzuen emate efektiboa ziurtatzea.

Udalak sortzeko edo kentzeko prozesuek, bai eta haien dermioak aldatzeko prozesuek ere, ezin izanen dute emaitza gisa ekarri hiri dermioa udal dermio batean baino gehiagotan zatitzea.

8. artikulua

Udal berriak sortuko dira, soilik, lurraldez bereizirik dauden populazioguneak oinarri hartuta eta ziurtatuz ezen sortutako udal horiek behar adinako baliabide edukiko dituztela udal eskumenak betetzeko ordura arteko kalitate berarekin. Udal horiek gutxienez ere 2.000 biztanle eduki beharko dituzte.

9. artikulua

1. Udal baten bategitea edo azkentzea honela gauzatu ahalko da:

Nafarroako Administrazioari buruzko Foru Legeko 16. artikuluan jasotako arrazoen ondorioz, eta honako beste bide hauetatik:

- a) Bertan bizitokia duten herritarren gehiengoak eskatuta.
- b) Kasuko udalak eskatuta.
- c) Udalak berritzeko hauteskunde prozesura zerrendarik aurkezten ez denean bi hauteskudentan jarraian.
- d) Legedi indardunean gutxieneko zerbitzuak emateko aukera berariaz aitortzen denean.

10. artikulua

Nafarroako Gobernuak, legea onetsi eta sei hilabeteko epean, erregelamenduz garatuko du udalak azkentzeari edo bat egiteari buruzko prozedura.

11. artikulua

Udal bat azkentzen denean, haren populazioa, lurraldea eta ondarea, bategite bidez, mugakidea den udal batean sartuko dira, lurraldearen jarraitutasuna ziurtatze aldera. Udal mugakide bat baino gehiago egonez gero, honako irizpideei begiratuko zaie, lehentasun hurrenkeran, bategitea zein udal lekin eginen den zehazteko:

- Bategitearen ondorioz biztanle-kopururik handiena ematen duen udala.
- Populazioguneen arteko distantzia.

12. artikulua

1. Azkentzen diren 2.000 biztanletik beherako udalek kontzeju izena hartuko dute.

2. 200 biztanle baino gutxiago duten udalek kontzejuen funtzionamendu-araubide berezia izanen dute.

13. artikulua. Kontzejuak

1. Kontzejuek artxibo, jai eta azoka publikoen arloko eskumenak izanen dituzte.

2. 200 biztanle baino gehiagoko kontzejuek gaur egungo legediaren arabera araubidea izanen dute.

3. 200 biztanle baino gutxiagoko kontzejuek honako araubide berezia izanen dute:

3.1. Populazio txikia duten udal eta kontzejuentzako araubide berezia.

a) Ehun biztanle baino gutxiagoko udalek eta kontzejuek edo, biztanleak galdu dituztelako, kopuru horretatik behera daudenek honako antolamendu- eta funtzionamendu-araubide berezia hartu ahalko dute.

b) Araubide hau ezartzea Osoko Bilkurari edo haren organo baliokideari dagokio, eta gehiengo osoz hartu beharko da erabakia. Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta Toki Administrazioaren arloko departamentu eskudunari jakinarazi beharko zaio, beranduenez hamar egun balioduneko epean.

c) Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete iragan denean, kapitulu honetan jasotako arauak aplikatu beharko dira.

d) Araubide berezi hau ezarrita, ezin izanen da hura berrikusi, harik eta udalaren edo kontzejuen legezko agintaldia amaitzen ez den arte.

3.2. Gobernu-organoak.

a) Honakoak izanen dira araubide berezia duten udal eta kontzejuen gobernu organoak:

- Herritarren Batzarra.

- Alkatea edo kontzejuburu eta, kasua bada, kontzejuburuordeak. Horien eginkizunak izanen dira udaletako alkateek eta zinegotziek dauzkaten berak.

- Idazkaria.

- Administrazioailea.

a) Barne araubideko ordenantzan jasota edo herritarren batzarrak erabakia gehiengoz hartuta, aurrekoen bestelako gobernu organoak ezarri ahalko dira, herritarren partaidetzarekin. Horrek, halere, ez die kalterik ekarri behar foru lege honek aurrekoei hirugarrenen aurrean esleitzen dizkien eginkizun eta erantzukizunei.

3.3. Batzarra. Eginkizunak.

Herritarren Batzarrari dagozkio:

a) Kontzejuburu, kontzejuburuorde, idazkari eta administrazioaile karguetan arituko diren pertsonak izendatzea eta kargutik kentzea.

b) Ordenantzak onestea.

c) Toki erkidegoaren urteko aurrekontua eta kasuko kontuak onestea.

d) Barne araubideko ordenantza bat onestea edo aldatzea, funtzionamendua hobetzeko. Aukerakoa izanen da ordenantza hori gitea.

e) Toki erkidegoarentzat interes orokorrekoak diren gainerako gaiak aztertu eta erabakitzea; eta beharrezko edo komenigarri diren neurriak hartzea, guztiontzako zerbitzua hobea izan dadin.

f) Udal edo kontzejuen Osoko Bilkuraren eta gainerako organo kolegiatuen eskumen berekiak.

3.4. Batzarraren funtzionamendua

a) Herritarren Batzarrera joan diren herritarrak berak edo haien legezko nahiz borondatezko ordezkariak; borondatezko ordezkariak egiaztatzea, nahiko izanen da herritarrak sinatutako idazki bat.

b) Herritarren Batzarra gutxienez ere lau hilez behin bilduko da, bai eta aurrekontuak, kontuak eta ordenantzak onesteko beharrezkoa denean eta komenigarritzat jotzen den gainerakoetan ere. Halaber, herritarren bosten batek eskatzen duenean bilduko da.

c) Herritarren Batzarrerako deialdia lehendakariak egiten du, eta, hori izan ezean, bileraren sustatzaileek; deialdian adieraziko da zein gai eztaba- datuko den, zein toki, egun eta orduan, lehenengo deialdian, eta, beharrezkoa izanez gero, bigarren deialdian.

Deialdia egiteko, haren publikotasuna ahalbide- tuko duen edozein bitarteko erabili ahalko da.

Aurrekoa gorabehera, deialdiaren jakinarazpe- na banakakoa eta nahitaezkoa izanen da aztertu beharrezko gai batek herritar batengan zuzeneko eragin pertsonala duenean. Banakako jakinarazpe- na nahitaezkoa izanen da, halaber, herritarrek helbide elektronikoa daukatenean eta horixe adie- razia dutenean.

d) Edozein herritarrek Herritarren Batzarrari eska diezaioke erkidegoarentzat interesgarri izan daitekeen edozein gai aztertu eta horren gainean iritzia emateko. Horretarako, lehendakariari idazkia bidaliko dio, eta idazki horretan argi eta garbi adie- raziko dio zein gai nahi duen jorratu; lehendakariak gai horiek sartuko ditu hurrengo batzarraren gai- zerrendan.

Toki entitateak helbide elektroniko bat jarriko du herritarren eskura, bertara jo ahal dezaten eskatu nahi dutenean erkidegoarentzat intereseko- tzat jotzen dituzten gaiak aztertzea eta haiei buruz erabakiak hartzea.

e) Batzarraren bilkuran, lehenengo deialdian herritar gehienak azaltzen ez badira, bigarren deialdia eginen da; bigarren horretan ez da quorumik beharko.

Bigarren deialdian, Batzarra bilduko da lehenengo zitazioan adierazitako toki, egun eta orduan; lehenengo bileraren egun berean egin daiteke, bileraren horretatik ordu erdi igaro bada. Lehenengo zitazioan ezer adierazi ezean, Batzarrerako deialdia berriz eginen da, artikulua honetan ezarritako betekizunekin bat etorriz, egin gabeko batzarraren hurrengo zortzi egun naturalen barruan; kasu horretan, deialdia, gutxienez, hiru eguneko aurrerapenarekin egin beharko da.

f) Batzarraren bilkura arruntetarako deialdia, gutxienez, sei eguneko aurrerapenarekin egin beharko da; batzar berezien kasuan, deialdia behar besteko aurrerapenarekin egin behar da, herritar guztiek horren berri izan dezaten.

g) Batzarrak erabakiak hartzeko arau eta quorumak izanen dira udalen Osoko Bilkuraren erabakiak onesteko dauden berak.

3.5. Kontzejuburua.

a) Alkatea edo kontzejuburua Batzarrak izendatuko du herritarren artean, hauteskunde bidez edo, halakorik ezean, txandaka edo zozketa bidez.

b) Izendapena nahitaezkoa izanen da; dena den, kargua hartu eta hurrengo hilabetean, izendatutako herritarrek Batzarrari eska diezaioke bera kargutik kentzeko, horretarako egoki iruditzen zaizkion arrazoiak azalduz. Batzarrak beste izapiderik gabe ebatziko du bidezko dena, eta ebazpenean bertan izendatuko du zein herritarrek ordeztuko duen karguan kontzejuburua, kasua bada.

c) Kontzejuburuak, legez, toki erkidegoa ordezkatu du, epailetan nahiz epailetatik kanpo, erkidego horri dagozkion arazo guztietan.

3.6. Kontzejuburuordeak.

a) Kontzejuburuordeak izatea aukerakoa izanen da.

b) Ezin izanen dira egon bi kontzejuburu baino gehiago.

c) Horiek izendatzeko prozedura eta kontzejuburua izendatzeko berberak izanen dira.

d) Kontzejuburuordeari edo, bestela, kontzejuburuordeei dagokie, beren hurrenkeraren arabera, kontzejuburuaren ordezkari gisa jardutea kanpo dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo kontzejuburuaren ezintasun kasuan; kontzejuburuordeek, halaber, kontzejuburuari laguntza emanen diote, batzarrak ezarritako moduan.

3.7. Idazkaria eta administratzailea.

a) Pertsona berberak izan ditzake idazkari eta administratzaile karguen eginkizunak; bestela ere, modu independentean izenda daitezke biak.

b) Edozein herritarrek bete dezake administratzaile kargua, bai eta, kasua bada, idazkari-administratzaile kargua ere. Halaber, kargu horiek bestelako pertsona fisikoek bete ahalko dituzte, horretarako behar besteko lanbide-prestakuntza badute. Eginkizun hori estatutuarekin aurreikusten duten korporazioak edo bestelako pertsona juridikoak ere jardun ahalko dira horretan.

c) Administratzaileari dagokio:

- a) Udalaren edo kontzejuburuaren araubide ona eta horren instalazioak eta zerbitzuak zaintzea; ondore horietarako, herritarrei egokiak diren aberrimenduak eta ohartarazpenak egin beharko dizkie.

- Aurrekontuen eta kontuen proiektua behar den denboraz prestatzea.

- Etxearen kontserbazioari eta mantentzeari aurre egitea, presakoak diren konponketak eta neurriak hartuz; halako konponketak eta neurriak hartuz gero, horien berri eman beharko zaio, berehalakoan, kontzejuburuari, edo, kasua bada, herritarrei.

- Onetsitako erabakiak eta ebazpenak beteaztea.

- Bidezkoak diren ordainketak eta kobrantzak egitea.

- Batzarreko idazkari gisa jardutea, kasua bada, eta dokumentazioa zaintzea.

- Batzarrak emandako gainerako eginkizunak edo alkateak nahiz kontzejuburuak emandakoak.

3.8. Izendapenaren iraupena.

Gobernu-organoen izendapena udalen izendapenak egiten diren epe bererako eginen dira. Izendatuak beren kargutik ken daitezke, dagokien agintaldia bukatu baino lehen, baldin eta Herritarren Batzarrak bilkura berezia egin eta, bertan, hala erabakitzen bada.

3.9. Akten eta ebazpenen liburuak.

a) Herritarren Batzarraren erabakiak akta-liburu batean jasoko dira. Akta-liburu horrek idazkariak diligenziaz izan beharko du eta herritar guztien eskura egonen da. Herritarrek haren kopia eskatu ahalko dituzte.

b) Batzarraren bilkura bakoitzaren aktak, gutxienez, honako inguruabar hauek jaso behar ditu:

- Zein egunetan eta zein tokitan egin den batzarra.

- Nork egin duen deialdia, eta, kasua bada, nortzuk izan diren batzarra sustatu duten herritarrak.

- Ea bilera arrunta den ala berezia; gainera, lehenengo deialdian ala bigarrenean egin den adierazi behar da.

- Bertaratu guztien eta haien karguen zerrenda, bai eta ordezkaturako herritarren zerrenda ere.

- Bilera horretako aztergaiak zeintzuk izan diren.

- Hartutako erabakiak.

c) Aktaren amaieran alkatearen edo kontzejuburuaren eta idazkariaren sinadurak beharko dira.

d) Sinatutako akta udalaren edo kontzejuren webgune ofizialean argitaratu ahalko da, baina kendu beharko dira kargu publikoaren izaera ez duten interesdunak identifikatzeko bidea eman dezaketen datu pertsonalak.

3.10. Ebazpen-liburua.

a) Alkateak edo kontzejuburuak ematen dituen ebazpenen jatorrizko ale bat idazkariak diligentziatutako ebazpen-liburuan jasoko da, eta herritar ororen esku egonen da. Liburu horretan jasotako ebazpenak baino ez dira jatorrizkotzat hartuko, eragin guztietarako.

b) Alkateak edo kontzejuburuak sinaturik egon beharko dute ebazpenek, balioa izateko.

c) Sinatutako ebazpenak udalaren edo kontzejuren webgune ofizialean argitaratu ahalko dira, baina kendu beharko dira kargu publikoaren izaera ez duten interesdunak identifikatzeko bidea eman dezaketen datu pertsonalak.

14. artikulua. Barrutiak

Lege honen aplikazioaren emaitza diren udalak, 2.000 biztanle baino gutxiago dituztenak, barrutiak sortuz antolatu ahalko dira.

Barrutiak udal mugakideek osatzen dituzte, Nafarroako lurralde estrategiako eremuak eta azpi-eremuak erreferentziatzat harturik.

Barrutiek zerbitzuak emanen dituzte foru lege honetan esleitzen zaizkien eskumenen arabera.

Barrutiek egitura iragazkorra izanen dute, halako moduz non haien osatzen dituzten udalek erabaki ahalko duten haien esku uztea foru lege honetan 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalei esleitzen zaizkien eskumenak.

Halaber, 2.000 biztanle baino gehiagoko udal mugakideen zerbitzuak emateko eskumenak hartu ahalko dituzte, baldin eta udal horiek erabakitzen badute eskumenak barrutiaren esku uztea.

Udalek beren borondatez eskumenak barrutien esku lagatzea atzerazintzat joko da, ezinbestez.

15. artikulua. Gobernu-organoak

Barrutiaren gobernu-organoa osatzeko, udaleko ordezkariak batzarra eratuko dute.

Batzarreko kideak izanen dira udal bakoitzeko 2 eta 4 zinegotzi bitarte, zeinak hautatuko baitira hauteskunde-emaitzen proportzionaltasuna errespetatuz.

Batzarreko kideen artetik lehendakari bat, lehendakariorde bat eta bi eta lau batzordekide bitarte hautatuko dira.

Bozketa izendun baten bidez lehendakari hautatuko da boto gehien lortzen dituen, eta lehendakariorde, berriz, boto-kopuruan bigarren tokian gelditu dena. Prozedura bera erabiliko da batzordekideak hautatzeko. Hautagai-zerrenda bat baino gehiago aurkezten bada, ordezkari bat banatuko da hautagaitza bakoitzak lortzen duen boto-kopuruaren proportzioan.

Udaletako batzordekideak hautatzeko udal bakoitzean dagoen proportzionaltasuna errespetatuko da.

Barrutiko Batzarrak udal baten eskumen eta funtzionamendu berekiak hartuko ditu, eta gutxienez ere hiruhilekoan behin elkartu beharko da.

16. artikulua. Barrutien finantzaketa

Barrutiek, gainerako toki entitateek bezala, ziurtatuta eduki beharko dute nahikotasun finantzarioa.

Hura ziurtatze aldera, ematen dituzten zerbitzuengatik tasa eta prezio publikoetatik hartzen dituzten diru-sarrerak edukiko dituzte, bai eta barrutiei, esleituta dauzkaten eskumenengatik, egokitu dakiekeen Toki Ogasunen Funtseko zatia ere.

Inbertsioak egiteko zenbateko bereziak, foru erkidegoak edo barrutia osatzen duten udalek emanak.

Nafarroako Gobernuak bultzatuko ditu barrutien finantzaketa ziurtatzeko behar diren laguntza ekonomiko eta teknikoak.

III. TITULUA Mankomunitateak

17. artikulua

Mankomunitateen gehiegizko kopurua arrazionalizatze aldera, Nafarroako Gobernuak sustatu eta bultzatuko du eta pizgarriak ere emanen ditu dauden mankomunitateak elkartzeko, beharrezkotzat jotzen den laguntza ekonomiko eta tekniko emanaz. Interes orokorreko mankomunitatetan bilduko ditu, eta mankomunitate horiek eskualderako zerbitzuak emanen dituzte, honako irizpideei jarraituta:

- a) Zerbitzu-ematea hobetzea.
- b) Mankomunitateek ematen dituzten eskumenak bereganatzea.
- c) Gero batean, udalek eskuordetuta esle dakizkiekeen eskumenak bereganatzea eta zerbitzuak ematea.

Interes orokorreko mankomunitateak udal mugakideen artean eratuko dira, lurraldeari jarraitutasuna emateko, Nafarroako lurralde-estrategiaren eremuak edo azpi-eremuak errespetatuta, 2. eranskinean ezarri bezala.

Mankomunitate horietako kidea izatea borondatezkoa izanen da. Halere, udalek eskumenak lagatzen badituzte, atzeraezintzat joko da hori.

18. artikulua

Interes orokorreko mankomunitateen eraketari aplikatuko zaizkio egungo mankomunitateetarako Nafarroak ezarritako arauak. Interes orokorreko mankomunitateak eratzeak berarekin ekarriko du egungo mankomunitateak desagertzea.

Foru lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduak aurkeztuko ditu, mankomunitateen existentzia ziurtatuko dutenak.

19. artikulua. Kudeaketa-sistemak

Interes orokorreko mankomunitateek beren estatutuetan kudeaketa- eta aurrekontu-sistema bat jasoko dute, emaitzen arabera, bai eta adierazle-sistema bat ere, zeinak bidea emanen baitu zerbitzu-ematearen eraginkortasuna eta efizientzia ziurtatutako duen jarraipena egiteko.

Honakoek proposamenak egin ahalko dituzte zerbitzuen funtzionamendua zabaltzeko eta hobetzeko:

- Mankomunitateko zuzendaritza-organoek
- Udalek
- Zuzendaritza-organoetan dauden ordezkariak

20. artikulua. Gobernu-organoak

Interes orokorreko mankomunitateetako gobernu-organoek kasuko mankomunitatean bildutako

udalak ordezkatu dituzte eta batzar bat edukiko dute, beren estatutuek adierazten dutenaren arabera eta honako arauak errespetatuz:

a) Batzarra udaletako ordezkariak osatuko dute. Ordezkari kopurua eta boto kopurua biztanle-kopuruaren arabera izanen da. Udal bakoitzeko ordezkariak hautatuko dira kasuko udaleko osoko bilkuran dagoen proportzionaltasuna errespetatuz.

b) Lehendakari bat hautatuko da, eta hark alkate baten eginkizunak bereganatuko ditu udalei dagokienez; eta lehendakariorde bat ere hautatuko da, bai eta bi eta bost batzordekide bitarte, estatutuetan ezarritakoaren arabera. Lehendakariaren eta lehendakariordearen hautatzea botaketa izendun batean egingen da, eta hartan boto gehien dituen lehendakari hautatuko da, eta botoetan bigarrena dena, lehendakariorde. Prozedura bera erabiliko da batzordekideak hautatzeko. Hautagaitza bat baino gehiago aurkezten bada, ordezkari-tza banatuko da hautagaitza bakoitzak lortzen duen boto-kopuruaren proportzioan.

c) Mankomunitateko batzarraren funtzionamendua, udaletako osoko bilkurari eta exekutiboari dagokienez, tokiko gobernu batzarrerako ezarritakoaren arabera izanen da.

d) Batzarra hiru hilez behin bilduko da, bilkura arruntean nahiz bilkura berezian, beharrezkotzat jotzen den guztietan, kasuko mankomunitateko estatutuen arabera.

IV. TITULUA

Iruñeko metropolialdea

Iruñeko metropolialdea Iruñeko konurbazioaren erakunde-antolamendua da, eta honako udalek osatuko dute: Iruña, Barañain, Burlata, Antsoain, Atarrabia, Zizur, Aranguren, Berriozar, Eguesibar, Beriain, Noain, Berriobeiti eta Uhartea. Horiei guzti-
ei eskaintzen dizkie zerbitzuak.

Oro har, udal horiei eskainiko dizkie zerbitzuak.

Ondoren xehaturiko zerbitzuak emanen ditu:

- Metropolialdeko poliziaren arloan:
 - Bereganatuko ditu polizia ezberdinek betetzen dituzten eskumenak.
 - Udaltzaingo ezberdinak batuko dira metropolialdeko kidego bakarrean.
 - Metropolialdeko trafikoaren antolaketa
- Metropolialdearen hirigintza plangintza:
 - Metropolialde osoaren hirigintza garapenaren plangintzaren inguruko eskumenak hartuko ditu.

– Metropolialdeko parkeen eta lorategien arloko eskumenak bereganatuko ditu.

– Metropolialdeko ingurumen arloko politiken arloko eskumenak bereganatuko ditu.

- Aisiaren eta kulturaren arloko politika:

– Metropolialdeko kultura-instalazioen eta -jardueren kudeaketari buruzko eskumenak bereganatuko ditu.

– Metropolialdeko kirol-instalazioei eta -jardueri buruzko eskumenak bereganatuko ditu.

– Metropolialdeko aisialdiaren inguruko beste edozein jarduerari buruzko eskumenak bereganatuko ditu.

21. artikulua. Gobernu-organoak

Metropolialdeko kontseilu bat eta gobernu batzorde bat egonen dira.

Metropolialdeko Kontseilua udaletako ordezkariak osatuko dute. Ordezkaritza eta boto-kopurua biztanle-kopuruaren arabera izanen da. Udal bakoitzeko ordezkariak hautatuko dira kasuko udaleko osoko bilkuran dagoen proportzionaltasuna errespetatuz.

Metropolialdeko Kontseiluko burua Gobernu Batzordeko lehendakaria izanen da, eta Metropolialdeko Kontseilu hori izanen da Gobernu Batzordea hautatuko duena.

Gobernu Batzordea honela hautatuko da: lehendakaria eta lehendakariordea bozketa izendun batean hautatuko dira; lehendakaria izanen da boto gehien lortzen duena, eta lehendakariordea, boto-kopuruan bigarren tokian gelditzen dena.

Batzordekideak, zazpi bitarte, prozedura bera erabiliz hautatuko dira. Hautagaitza bat baino gehiago aurkezten bada, ordezkariak banatuko da hautagaitza bakoitzak lortzen duen boto-kopuruaren proportzioan.

Metropolialdeko Kontseiluaren bilkuretan Gobernu Batzordeko lehendakaria izanen da burua. Bilkura horien funtzionamendua udaletako osoko bilkurek dutenaren antzekoa izanen da.

Bilkura arruntak gutxienez ere hiru hilez behin egiten dira, eta bilkura bereziak, berriz, egokitzen jutzen denean.

Gobernu Batzordearen funtzionamendua eta bilkurak erregelamenduz finkatuko ditu toki entitate horrek.

V. TITULUA

Tradiziozko batasunak

Honakoak dira Nafarroako toki entitate izaera duten tradiziozko batasunak:

- Errege Bardeako Komunitatea
- Aezkoa Ibarreko Komunitatea
- Erronkari Ibarreko Komunitatea
- Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea

22. artikulua. Zuzendaritza organoak

Toki entitateak ordezkatzeko badituzte, ordezkari instituzionalek osatuko dituzte, bai eta ohitura eta usadioei jarraituz izendatzen dituztenek ere, beste kolektibo batzuetako ordezkarien kasuan.

Zuzendaritza organoak batzar batek eta gobernu batzorde batek osatuko dituzte.

Batzarra tradiziozko batasun hori osatzen duten erakunde edo kolektibo bakoitzeko ordezkariak osatuko dute.

Gobernu Batzordea lehendakari batek, lehendakariorde batek eta 4 eta 8 batzordekide bitartek osatuko dute.

Hautatzeko prozedura boto izendun eta isilpekoa izanen da. Lehendakari bat, lehendakariorde bat eta lau eta zazpi batzordekide bitarte hautatuko dira.

Hautagaitza bakarra aurkezten bada, lehendakaria izanen da boto-kopuru gehien lortuko duena; lehendakariordea, boto-kopuruan bigarren tokian dagoena; eta batzordekideak, berriz, ondoz ondo boto gehien lortzen dituztenak.

Hautagaitza bat baino gehiago aurkezten bada, ordezkariak banatuko da hautagaitza bakoitzak lortzen duen boto-kopuruaren proportzioan.

Lehendakaritza egokituko zaio boto-kopuru handiena lortzen duen hautagaitzari.

VI. TITULUA

Toki partzuergoak

Legedi indardunean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

VII. TITULUA

Udalak azkentzea

Lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren lege- eta erregelamendu-neurriak hartuko ditu 200 biztanle baino gutxiago dituzten udalen borondatezko

azkentzea eta kasuko udalarekiko bategitea bideratzeko.

Udal izateari uzten dioten toki entitateak kontzeju izatera pasako dira.

VIII. TITULUA Kontzejuak azkentzea

Lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren lege- eta erregelamendu-neurriak eta neurri ekonomikoak hartuko ditu kontzejuen borondatezko azkentzerako pizgarriak emateko. Horren ondorioz, kontzejuen populazioa, lurraldea eta ondarea sartuko dira parte diren udalean eta udal horrek bere gain hartuko ditu ordura arte kontzejuak zeuzkan eskumenak eta ematen zituen zerbitzuen kudeaketa.

Hala eta guztiz ere, kontzejuetan bizitokia dutenek, udal hauteskundeak egiten direnean, ordezkari bat hautatuko dute, eta ordezkari horri, nahitaez, aldezturik entzun beharko diote bai parte deneko udalak, bai Nafarroako Gobernuak, kontzeju horietan eragina duten neurriak hartu behar dituztenean.

Kontzejuetako herritarrek lehentasunezko eskubidea izanen dute ondareaz, eta bereziki herri-lurrez, gozatzeko eta haiek erabiltzeko.

Udalak ondarearen eta herri-lurren kudeaketatik lortzen dituen baliabide ekonomikoak lehentasunez kontzejuaren azpiegituretarako erabiliko dira.

IX. TITULUA Beste toki entitate batzuen azkentzea

Bikoiztasunak saihestearren eta, lege honetan jasotako toki entitateen abiarazpena garatzen doan neurrian toki entitatearen baten geraraztea saihesteko, honakoak azkenduko dira: zerbitzu administratiboetarako batasunak, Nafarroako Foru Komunitateari buruzko Foru Legearen arabera udal bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, mankomunitateak eta toki entitate izaera ez duten tradiziozko batasunak.

23. artikulua. Eskumenak eta zerbitzu-ematea

Lege honetan aitortutako toki entitateek zerbitzuak izaera unibertsalez emanen dizkiote esleitura daukaten esparruko populazioari, ondoren zehazten diren eskumenen arabera:

– 2.000 biztanletik beherako udalerriak.

Eskumenak

- Hirigintza eta etxebizitza
- Jaiak

- Herrilurrak
- Landa garapena eta ingurumena
- Bideak
- Hilerria
- Barne merkataritza eta azokak
- Zerbitzu komunitario eta sozialak

– Barrutiak (2.000 biztanletik beherako udalerriak)

Eskumenak

- Administrazio orokorra eta zerbitzu administratiboak
- Argiteria publikoa
- Bideetako garbiketa
- Haurtzaindegiak
- Euskarazko hezkuntza
- Uren saneamendua eta banaketa
- Babes zibila
- Kultura eta aisia

– 2.000 biztanletik gorako udalerriak

Eskumenak

- Hirigintza eta etxebizitza
- Jaiak
- Herrilurrak
- Landa garapena eta ingurumena
- Bideak
- Hilerria
- Barne merkataritza eta azokak
- Administrazio orokorra
- Argiteria publikoa
- Bideetako garbiketa
- Haurtzaindegiak
- Arloen saneamendua eta banaketa
- Babes zibila
- Ikastetxeak
- Osasun etxea eta ospitaleak
- Hezkuntzaren arloko bestelako gastuak (euskarara)
- Kultura eta aisia
- Zerbitzu komunitario eta sozialak

– Mankomunitateak

Eskumenak

- Hondakinak
- Ur-hornidura
- Kirola
- Gizarte zerbitzu zabalduek
- Plangintza industrialak

- Turismoa
- Musika eskola
- Garraioak

24. artikulua. Udaltzaingoa

Aurrez ezarritakoaren arabera, Iruñeko konurbazioa osatzen duten udallerrietako udaltzaingoa-
ren arloko eskumenak, antolamendua eta zerbitzu-
ematea Iruñeko Metropolialdearen menpe egonen
dira.

Nafarroako gainerako tokietan, udaltzaingoko
kidegoak egonen dira 14.000 biztanle baino gehia-
goko herrietan.

Gainerako udaletan, udaltzaingoaren eginkizu-
nak Nafarroako Foruzaingoak hartuko ditu.
Horrenbestez, kasu horretan, giza baliabideak
berrantolatuko dira eta Foruzaingoa sartuko dira.

Udal horiek gutxienezko udaltzaingo edo aginta-
ritzaren agente batzuk izanen dituzte, tokiko admi-
nistrazioarekin lotutako gaietarako.

25. artikulua. Herritarren parte-hartzea eta
gobernantza

Lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean,
Nafarroako Gobernuak Parlamentuari herritarren
parte-hartzeari buruzko erregelamendu bat aur-
keztuko dio. Erregelamendu horrek toki entitate
guztietan izanen du eragina.

26. artikulua. Finantziazioa

2013ko abenduaren 31 baino lehen, Nafarroa-
ko Gobernuak toki entitateen finantziarioari buruz-
ko lege berri bat aurkeztuko du, toki entitateen
mapa berriari eta entitate horietako bakoitzak bere
gain hartzen dituen eskumenei egokitua.

27. artikulua. Zinegotzien soldatak

Toki entitateek, Toki Araubidearen Oinarriak
arautzen dituen Legean, Nafarroako Toki Adminis-
trazioari buruzko Foru Legean eta foru lege hone-
tan ezarritakoaren arabera, bertaratzeagatiko
ordainsariak, dietak, ordainduko dizkiete.

Toki Ogasunen Funtsen bitartez ekarpenak
jasotzen dituzten udalek, zinegotzientzako solda-
tak edo dietak ezartzeko, 1. eranskinean ezarritako
irizpideak bete beharko dituzte.

Udal autonomia dela-eta zinegotzien ordainke-
ta finantzatzeko bestelako irizpideak edo diru
kopuru handiagoak erabiltzen dituzten udalek
beren aurrekontuarekin ordainduko dute hori.

Lehen xedapen iragankorra

Lege hau onesten den unetik, Nafarroako
Gobernuak behar diren neurriak ezarriko ditu lege-

aren osoko garapena bermatzeko, hamabi hilabe-
teko epea duen finantziazio-formula kenduta.

Bigarren xedapen iragankorra

2013an zehar, Nafarroako Parlamentuak kasu-
ko legedia harmonizatu beharko du foru lege
honetan ezarritakoarekin.

1. ERANSKINA

Konstituzio-printzipio bat da herritarrek eskubi-
dea dutela arazo publikoetan parte hartzeko,
zuzen-zuzenean nahiz beren ordezkariak askata-
sunez hautatuz, eta eskubidea dutela, halaber,
kargu publikoetara berdintasun-baldintzetan hel-
tzeko. (Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua)

Udal hauteskundeak herritarren borondatearen
adierazpena dira; izan ere, herritarrek, haien bitar-
tezt, tokiko gobernuan izanen dituzten ordezkariak
hautatzen dituzte, adierazpide demokratiko go-
naren moduan, zeren eta udala lurralde antola-
mendu autonomikoa –eta, horrenbestez estatua-
ren lurralde antolamendua– eraikitzen deneko
oinarria baita.

Aipatutako herri-borondatearen adierazpena,
lehen aipatu dena, larriki mugatuta geratuko litz-
ateke, eta berdintasunerako oinarritzko eskubidea-
ren aurka eginen litzateke (Espainiako Konstituzio-
aren 14. artikulua), baldin eta demokratikoki
hautatu diren pertsonak beren karguetan jarduterik
ez balute, beren borondateaz edo lege edo epaiak
betetzeaz besteko arrazoiengatik.

Hartara, alkate edo zinegotzi eginkizunak bete-
tzea, korporazio bakoitzak zehazten duen ardural-
di-araubidearekin, ezin da egon zinegotziaren
egoera ekonomikoaren baitan, eta hain zuzen ere
horixe gertatuko litzateke gaizki ordaindutako
arduraldi eskusiboko nahiz partzialeko formulen
alde eginez gero, hain zuzen ere kargua eskura-
tzea ez bailitzateke egonen lorturiko boto-kopuru-
aren eta hauteskunde-zerrendako posizioaren
menpe, baizik eta haren ahalmen ekonomikoaren
menpe.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen
apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua
ordainketarako formula ezarri zuen (arduraldi
esklusiboa, arduraldi partziala eta dietak eta kalte-
ordainak), baina ez ordainsari-kontzeptu horien
erregulazio berariazko eta garatua, eta are gutxia-
go zenbatekoena; horrenbestez, bidea uzten du
etika izan dadin muga bakarra eta zenbatekoaren
zehaztapena toki entitatearen beraren esku uzten
du, toki autonomiaren printzipioa bere modurik
zabalenean aplikatzearen indarrez.

Eskumen hori, baina, itxura batean mugagabea, Auzitegi Gorenak zehaztu du, 1999ko abenduaren 20ko epaian, honakoa esanez: "legegileak eta erregelamendu-ahalmenaren titularrak toki korporazioei askatasun-tarte bat eman diete beren kideei ordaintzeko, eta askatasun hori ezin askatasun absolututzat jo, baizik eta izaera orokorreko arauen termino orokorretara mugatutako askatasuntzat."

Hartara, bada, ikusten da, ordainsari horiek finkatzeko Osoko Bilkurak duen gaitasun hori ez dela absolutua, baizik eta mugatuta dagoela.

Halaber, ikusten da, hautetsia udal langilearen kasuetarako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 74. artikulua, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 54.2 artikulua eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak ezartzen dutela zerbitzu berezieta-ko egoerara pasatuko direla eta aukeratzeko eskubidea izanen dutela hautatuak izan diren karguari dagokion ordainsariaren eta langile publiko moduan jasotzen zuten ordainsariaren artean.

Soilik udaleko bertako langileei aplikatzekoa zaien arau baten aurrean gaude, zeina ezin baitzaie aplikatu baldintza hori betetzen ez duten beste pertsona batzuei. Araua, gainera, oinarrituta dago langile horiek alkatea edo zinegotzia izateko daukaten bateraezintasunean (Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoko 178.2 b) artikulua). Hori, halere, ez da eragozpena legegilearen borondatea interpretatzeko, alegia, hautetsiak izateko bidea erraztea haiei, sostengu ekonomikoa bermatuta.

Are gehiago, Langileen Estatutuko 37.3 d) artikulua, zeinera jotzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikulua, ezartzen du lanera joan gabe geratzean ordainsaria jasotzeko eskubideari eutsiko zaiola "behar duen beste denbora, desenkusaezineko betebeharrak publiko bat betetzeko denean," baina ondoren esaten du betebeharrak horrek laneko orduetatik % 20 baino gehiago hartzen badu hiru hilabeteko epean, enpresak langilea estatutu horren 46.1 artikuluan aurreikusitako nahitaezko eszedentzia-egoerara pasatu ahalko duela.

Horrenbestez, hautetsi gisa jarduteak ehuneko horretatik gorako denbora-zama bat badakar eta toki entitateak ez badu finkaturik behar adinako ordainsaririk, zinegotzia aukera zail baten aurrean geratuko da: edo lanpostua uztea, edo karguari uko egitea. Bada, hori kargu publiko batera berdin-

tasun baldintzetan sartzeko konstituzio-printzipioaren aurkako eraso izanen litzateke.

Azaldutako guztia dela eta, udal autonomia guztiz errespetatuta eta dagoen egoera bideratze aldera, honako proposamena egiten dugu arduraldi eskusiboa duten zinegotziei edo, kasua bada, arduraldi partziala dutenei ordaindu beharreko ordainsariei dagokienez, horretarako erreferentziazat harturik udalerrri bakoitzeko biztanleen kopurua, zenbateko horretatik abiatuta populazio-tartearak ezartzeko. Izan ere, populazio tarte horiei aplikatuko zaizkie ordainsari-araubide eta zenbateko ezberdinak, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legeko 75. artikuluan jasotako ordainsari-kontzeptuei dagokienez. Honakoak dira, hain zuzen:

- Arduraldi eskusiboko araubidea.
- Arduraldi partzialeko araubidea.
- Bertaratzeagatik dietak.
- Kalte-ordainak, zeinak ez baitira ordainsaritzat hartzen, baizik eta hautetsi kargua betetzeak zuzenean eragindako gastuen konpentsazio gisa, eta aurreko kontzeptu guztiekin bateragarriak dira.

Lehenengo maila batean, 250 biztanle bitarteko udalerrriak daude, zeinetan alkateek jasoko baitituzte entitate bakoitzak finkatutako zenbatekoak soilik, "bertaratzeagatik dieta" gisa. Haien egoera udalbatzako gainerako kideen parera geratuko da, zeren eta ezin baita zenbateko ezberdinak jarri dieta-kontzeptuan haren kide bakoitzarentzat, ez eta kopuru finkorik jaso ere, zeren eta horiek ordainsari izaera izanen bailukete, horrek Gizarte Segurantzaren kotizazioetan eta PFEZaren atxikipenetan dauzkan eraginekin.

Bigarren mailan, 251 eta 1.000 biztanle bitarteko udalerrriak daude. Kasu horretan aukera dago lanaldi partziala izateko, eta urtean 5.000 eta 10.000 euro bitarteko ordainsari bat finkatzen da.

Kontuan hartu beharra dago aipatu ditugun ondorioak dauzkan ordainsari bat dela hori eta, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legeko aipatutako 75. artikulua araberak, bateraezina dela udalbatzara joateagatik dietak jasotzearekin.

Azkenik, eta hirugarren mailan, 1.001 biztanletik gorako populazioa duten udalerrriak daude, populazio-tarteen arabera sailkatuak.

Dokumentu honi erantsitako taulan zehazten dira tarte horiek eta horietako bakoitzean aplikatzekoa den ordainsari-tartea.

Halaber honako zehaztapenak egin behar dira orain arte azaldutako kontzeptu eta zenbatekoiei buruz. Zehaztapen horiek proposamenaren atal gisa txertatzen dira.

Lehena.- Beraiek erabakita edo udalbatzaren erabakiz arduraldi eskusiboko edo partzialeko araubiderik ez duten alkateek dagozkien dietak jasoko dituzte osoko bilkuretara eta batzordeetara joatearen truke, gainerako zinegotzien baldintza beretan, Toki Araubideko Oinarriak ezartzen dituen Legeko 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Populazio-tarte bakoitzean, arduraldi eskusiboko araubideari dagozkion ordainsariak arduraldi partzialeko kasuetan lan egiten deneko lanaldiaren proportzioan gutxituko dira.

Alkate gisa arduraldi partzalean jardutea bateagarria da udalez gaindiko izaera duen beste toki entitate baten izaera bereko beste egoera batean jardutearekin. Kasu horretan, toki entitateak jasotako zenbatekoaren eta udalez gaindiko entitateak jasotako zenbatekoaren baturak ezin izanen du gaintitu bi populazio-tarte goragoko egoerari dagokion gehieneko kopurua (erantsitako taulan jasota daude tarte horiek), betiere bi lanaldi partzialen batura lanaldi osoari dagokion arduraldira iristen bada; kontrako kasuan, bere populazio-mugari dagokion ordainsari-muga aplikatuko da.

Hirugarrena.- Kasuko udalaz besteko entitate edo erakunde publikoen bilkuretara joateagatik dietek, arduraldi eskusiboko edo arduraldi partzialeko araubideak dituzten alkateen kasuan, ezin izanen dute inoiz gaintitu 4.000 euroko zenbateko gordina. Udal bakoitzak egokitzen dituen formulak aplikatuko ditu irizpide hori betetzen dela ziurtatzeko.

Horretarako, ekitaldi bakoitza amaitu baino lehen, aurreko lerrokan ezarritakoaren arabera beren arduraldiak horretara behartzen dituenean, alkateek beren udalean deklaratu beharko dute ekitaldian zer zenbateko jaso dituzten entitate edo erakunde publikoetako bilkuretara joateagatik dieta gisa.

Laugarrena.- Arduraldi eskusiboko araubidea aukeratu eta, populazio-tarteen arabeko ordainsari taulak aplikatuz, enpresetan edo funtzionario publiko gisa jasotzen zituzten diru-sarrerak baino diru-sarrera gutxiago jasotzen dituzten alkateek % 20 bitarte igo ahalko dituzte beren diru-sarrerak adierazitako zenbatekoen gainean, baina igoera horrek berekin inola ere ez du ekarriko jasotzen duten gutzizko kopurua handiagoa izatea lehen beren lanaldi arruntaren ondorioz jasotzen zutena baino.

Bosgarrena.- Arduraldi eskusiboko edo partzialeko araubideak dituzten zinegotziek alkateentzat adierazitako irizpide berak izanen dituzte arau, bai ordainsariei dagokienez, bai dietak jasotzeari dagokienez, eta populazio-tarteen arabera adierazitako ordainsariei, gehieneko zein gutxiengo zenbatekoetan, % 10eko gutxitzea aplikatuko zaie.

Seigarrena.- Alkateek jaso beharreko zenbatekoak, edozein dela ere haien arduraldi-araubidea, finantzatuko dira udalaren funts berekien kargura, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtseko Transferentzia Arruntan Funtzaren kargura eta, kasua bada, udalez gaindiko toki entitateen eta sozietate publikoen funtsen kargura, haien gobernu-organoetako kideak badira, daukaten kargua dela medio.

Horretarako, Transferentzia Arruntan Funtzaren kargura, zinegotziei ordaintzeko ekarpenaren atalean, bi ekarpen mota jasotzen dira:

a) Alkateen arduraldi-araubidearen ondoriozko ordainsariengatik ematen direnak.

b) Zinegotzientzako dietengatik ematen direnak.


Zazpigarrena.- Udalek Transferentzia Arruntan Funtzaren kargura zinegotzientzako ordaintetarako jasotzen dituzten ekarpenek berariazko xede bat dute. Hori dela eta, ezin izanen dira erabili hasieran zeukaten helburuaz bestelako xede batzuetarako.

Alkateentzako eta toki entitateen beste kargudunentzako urteko ordainsarien orientabidezko erreferentzia-taula

Udal kopurua	Tartea	Urteko kopurua Proposamena	
107	250 biztanle bitarte		Dietak soilik
80	251 - 1.000 biztanle	5.000 eta 10.000 € bitarte	Arduraldi partziala
27	1.001 - 2.000 biztanle	18.000 eta 24.999 € bitarte	Arduraldi eskusiboa edo arduraldi partziala
20	2.001 - 3.000 biztanle	25.000 eta 29.999 € bitarte	
15	3.001 - 4.000 biztanle	30.000 eta 34.999 € bitarte	
3	4.001 - 5.000 biztanle	35.000 eta 37.999 € bitarte	
11	5.001 - 10.000 biztanle	38.000 eta 40.999 € bitarte	
5	10.001 - 15.000 biztanle	41.000 eta 42.999 € bitarte	
2	15.001 - 25.000 biztanle	43.000 eta 44.999 € bitarte	
2	25.000 biztanletik gorakoak	45.000 € edo gehiago	
Guztira, 272			

2. ERANSKINA

MANKOMUNITATE BERRIAK



MANKOMUNITATEA 1	MANKOMUNITATEA 2		MANKOMUNITATEA 3		
1. EREMU	2. EREMU	5. EREMU	3. EREMU	4. EREMU	
ABLITAS	CAPARROSO	ARTAXOA	ANDOSILLA	ABAIGAR	LAPOBLACIÓN
ARGUEDAS	ZARRAKAZTELU	BARASOAIN	AZAGRA	ABARTZUZA	LARRAONA
BARILLAS	FALTZES	BEIRE	CÁRCAR	ABERIN	ELIZAGORRIA
BUÑUEL	FUNES	BERBINTZANA	LERIN	AGUILAR KODES	LEGARIA
CABANILLAS	MARTZILLA	GARINOAIN	LODOSA	ALLIN	LEZAUN
CADREITA	MÉLIDA	LARRAGA	MENDABIA	ALLO	LOS ARCOS
CASCANTE	MURILLO EL CUENDE	LEOTZ	SAN ADRIÁN	AMESKOABARREN	LUKIN
CASTEJÓN	MURILLO EL FRUTO	MENDIGORRIA	SARTAGUDA	ANTZIN	MAÑERU
CINTRUÉNIGO	AZKOIEN	MIRANDA	SESMA	ARANARATXE	MARAÑÓN
CORELLA	SANTAKARA	ERRIBERRI	VIANA	ARAS	MENDAZA
CORTES	ALESBES	OLORITZ		ARELLANO	METAUTEN
FITERO		ORISOAIN		ARMAÑANTZAS	MIRAFUENTES
FONTELLAS		PITILLAS		ARROITZ	MORENTIN
FUSTIÑANA		PUJU		AIEGI	MUES
MILAGRO		SAN MARTIN UNX		AZUELO	MURIETA
MONTEAGUDO		TAFALLA		BARBARIN	NAZAR
MURCHANTE		UXUE		BARGOTA	OKO
RIBAFORADA		UNTZUE		CABREDO	OLEXOA
TUTERA				ZIRAUKI	OTEITZA
TULEBRAS				DESOIO	PIEDRAMILLERA
VALTIERRA				DEIKAZTELU	JAITZ
				EL BUSTO	SANTSOL
				ESPRONTZEDA	SORLADA
				LIZARRA	TORRALBA DEL RÍO
				ETAIU	TORRES DEL RÍO
				EULATE	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN
				GENEVILLA	VILLATUERTA
				GESALATZ	DEIERRI
				IGUZKITZA	ZUÑIGA
				LANA	

MANKOMUNITATEA 4	MANKOMUNITATEA 5	MANKOMUNITATEA 6	MANKOMUNITATEA 7	MANKOMUNITATEA 8	
6. EREMUA	7. EREMUA	8. EREMUA	9. EREMUA	10. EREMUA	
OIBAR	ABAUREGAINA	ARANTZA	ALTSASU	ADIOS	LANTZ
KASEDA	ABAUURREPEA	BAZTAN	ARAITZ	ANTSOAIN	LEGARDA
ESLABA	AGOITZ	BERTIZARANA	ARAKIL	ANUE	LIZOAIN
EZPOROGI	ARTZI	DONAMARIA	ARANATZ	AÑORBE	ELO
GALIPENTZU	ARIA	ELGORRIAGA	ARANO	ARANGUREN	MURUZABAL
XABIER	ARIBE	ERATSUN	ARBIZU	ARTAZU	NOAIN
LEATXE	AURITZ	ETXALAR	ARESO	ATETZ	OBANOS
LERGA	BURGI	EZKURRA	ARRUAZU	BARAÑAIN	ODIETA
LEDEA	GAZTELUBERRI	IGANTZI	BAKAIKU	BASABURUA	OLAIBAR
PETILLA ARAGOI	ERRO	ITUREN	BETELU	BELASKOAIN	OLLO
ZARE	ESPARTZA	LABAIEN	ERGOIENA	BERRIOBEITI	OLTZA
ZANGOZA	EZKAROZE	LESAKA	GOIZUETA	BERRIOZAR	ORKOIN
ESA	GALOZE	OITZ	UHARTE ARAKIL	BIURRUN	IRUÑA
	GARAIOA	SALDIAS	IRAÑETA	BURLATA	GARES
	GARDE	DONEZTEBE	IRURTZUN	ZIRITZA	TEBAS
	GARRALDA	SUNBILLA	ITURMENDI	ETXARRI	TIRAPU
	GORZA	URDAZUBI	LAKUNTZA	EGUESIBAR	UKAR
	IZABA	URROTZ	LARRAUN	ENERITZ	ULTZAMA
	ITZALTZU	BERA	LEITZA	ESTERIBAR	UNTZITI
	JAURRIETA	ZUBIETA	LEKUNBERRI	ETXAURI	URROTZ
	LONGIDA	ZUGARRAMURDI	OLAZTI	EZKABARTE	UTERGA
	IRUNBERRI		URDIAIN	GALAR	BIDAURRETA
	NABASKOZE		ZIORDIA	GOÑI	ÁTARRABIA
	OTSAGABIA			GIRGILAO	ZABALTZA
	ORBAITZETA			UHARTE	ZIZUR
	ORBARA			IBARGOITI	ZIZUR NAGUSIA
	ORONTZE			IMOTZ	
	OROTZ-BETELU			ITZA	
	ERROMANTZATUA			ITZAGAONDOA	
	ERRONKARI			TXULAPAIN	
	ORREAGA				
	SARTZE				
	URRAULGOITI				
	URRAULBEITI				
	URZAINKI				
	UZTARROZE				
	LUZAIDE				
	BIDANKOZE				
	HIRIBERRI				

